

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak bere lehen bi hilabeteetako jarduera positiboa eta bizia izan dela uste du

Administrazioaren egitura organiko berria garatu du eta berrogei erabaki onartu hainbat alorretan

Miércoles, 23 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuak bere legealdiko lehen bi hilabeteetan egindako jarduera bizia eta positiboa izan dela uste du, uztailaren 23an gobernukideak karguaz jabetu zirenetik.

Gaurko bilkuran, Foru Gobernuak lehen hirurogei egun hauetako jardueraren balantzearen laburpen bat egin du. Kontseilari-eledun Ana

Ollok bileraren ondorengo prentsaurrekoan jakinarazi duenez, denboratarte horretan, Gobernuak zazpi bilkura egin ditu. Bilera horien emaitza modura, aipatu beharra dago Foru Administrazioaren egitura organiko berria garatu duten 22 foru-dekretu onartu direla, eta 90 zuzendari nagusi eta zerbitzuko edo kidekoen zuzendari izendatu direla.

41 erabaki ere onartu dira, eta haien artean Gestión Ambiental de Navarra SA (GANASA) sozietate publikoari emandako milioi bat euroko mailegua sartzen da, plaza gehiago izatea suhiltzaileen oposizioan edo Davalor enpresari emandako kreditua.

Hezkuntza-alorrean, Gobernuak Ingelesa Ikasteko Programa (PAI) ebaluatzeko eta hobetzeko prozesua sustatu du; prozesu horretan, 50 ikastetxek eta 35 udalek parte hartzen dute. Behar ekonomiko larria duten ikasleentzako beken zenbatekoa ere % 10 handitu du.

Gizarte-alorrean, neurri batzuk ere hartu dira, esaterako: Gizarteratzeko Errentarako (RIS) aurrekontu-partida 5,6 milioi euroan handitzea, eta kopuru horri beste 4 gehituko zaizkio.

Azkenik, lehen bi hilabete hauetan ere Estatuarekin akordio batera heldu da Toki Administrazioiko Legeari dagokionez, enpresa-sektore publikoari buruzko hausnarketa-prozesu bat ireki da eta zintzilik zegoen FMko irratietxeak emateko lehiaketa desblokeatu da.



Nafarroako Gobernuak egindako bileretako bat.